Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5684

EBAZPENA, 2010eko urriaren 5ekoa, Kiroletako zuzendariarena, Kiroleko Dopatzearen aurkako Lege-aurreproiektuaren entzunaldi-izapidea egiteko dena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikuluak xedatzen duenez, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute».

Behin aipaturiko Lege-aurreproiektu hori Kultura Sailean onartu eta gero, horren eraginpean geratuko dira euskal federazio bateko lizentzia duten edo Euskadin bizi, entrenatu edo lehiatzen diren kirolari guztiak.

Destinatzaile gehienak euskal kirol-federazioetan integratuta egon arren, eta entitate horiei bidezko entzunaldia eman zaien arren, egia da egon daitezkeela federazio horietatik kanpo eragindako herritarrak. Kasu horretan entzunaldia zuzen-zuzenean egin behar da, eta horretarako epe nahiko eta arrazoizkoa hilabetekoa da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik, horixe xedatzen du-eta Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak bere 8. artikuluan.

Hori dela eta, hauxe

EBATZI DUT:

1.– Kiroleko Dopatzearen aurkako Lege-aurreproiektuaren entzunaldi-izapidea egitea, hilabetez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Bidezko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek, publiko edo pribatuek, kontsultatu ahal izango dute Kiroleko Dopatzearen aurkako Lege-aurreproiektuaren espedientea, Kirol Zuzendaritzaren egoitzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Gasteiz; tel.: 945 01 95 03), eta egokitzat jotako alegazio, dokumentu eta egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 5a.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5684

RESOLUCIÓN de 5 de octubre de 2010, del Director de Deportes, por la que se somete a trámite de audiencia el Anteproyecto de Ley contra el Dopaje en el Deporte.

Según se establece en el artículo 8.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, «las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas serán objeto del trámite de audiencia».

Una vez aprobado el Anteproyecto de Ley mencionada en el Departamento de Cultura, su aprobación afectará a la generalidad de deportistas que tengan licencia federada vasca o bien residan, entrenen o compitan en el País Vasco.

Si bien la mayoría de destinatarios se encuentran integrados en las federaciones deportivas vascas, entidades a las que se ha dado trámite de audiencia, no es menos cierto que pudieran existir ciudadanos afectados por dicha norma no encuadrados en dichas federaciones. En este último caso la audiencia ha de realizarse directamente, considerándose suficiente y razonable un plazo de un mes a partir del siguiente al de la publicación de esta resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo previsto en el artículo 8 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

De conformidad con lo expuesto,

RESUELVO:

1.– Someter a trámite de audiencia, por un plazo de un mes a partir del siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el Anteproyecto de Ley contra el Dopaje en el Deporte.

2.– El expediente del Anteproyecto de Ley contra el Dopaje en el Deporte podrá ser consultado por las personas físicas y jurídicas, públicas y privadas, que pudieran resultar afectadas en su interés legítimo, en la Dirección de Deportes, situada en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, CP: 01010, de Vitoria-Gasteiz, teléfono: 945 01 95 03, pudiendo presentarse en el plazo señalado las alegaciones, documentos y justificantes que se estimen convenientes.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 2010.

El Director de Deportes,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.